

[Eusk/Cast] Una marcha al cuartel de Soietxe denuncia las consecuencias de las guerras

KEM-MOC BILBO :: 26/10/2019

[Euskara]

SOIETXEKO KUARTELERA MARTXA BATEK GERRETAKO ONDORIOAK SALATZEN DU

Bizkaiko hainbat kolektibok “bota kuartelie eta erein porrue” lelopean, lurraldean dagoen instalazio militarrik handienaren desagerpena exijitu dute, Soietxeko kuartela, hain zuzen ere. Herri martxa baten bitartez, ejerzitoek heriotza eta suntsipena eragiten dutela eta munduan zehar gertatzen diren behartutako migrazioen arduradun direla salatu dute. Honez gain, Soietxeko Kuartela Mungialdeko behar sozialak asetzera bideratu dadila aldarrikatu dute.

Kuartelera iristerakoan ekintzaileek, errefuxiatuek mugetan bizi dituzten egoera latzak eta migrazio-politika bidegabeen ondorioak irudikatu dituzte antzerki baten bitartez. Ekintzak agerian utzi du berehalako kanporatze masiboek eta mugen itxierak, migratzaileak heriotzara kondenatzen dituztela, migratzeko eskubidea, oinarritzko giza eskubideak eta bizitza bera ukatuz.

Soietxeko kuartel militarren kontrako ohiko martxan (aurten bere hogeita hamargarren edizioa betetzen duena) antolatzaileek adierazi dute “kuartel honetako benetako papera ez da gure segurtasuna babestea, baizik eta sistema kapitalista eta patriarkalaren interesak babestea (nahiz eta hori lortzeko gizartea prekarietate laboralera kondenatu), pentsio duinen bermea sistematikoki ukatzea gizarte-bazterketa sustatu. Bitartean, Soietxe bezalako instalazioak mantentzeko diru publiko izugarria zarrasteltzen da - Estatuaren gastu militarra 33.762'40 milioi eurotara heltzen da - eta inbertsio sozialean, berriz, mozten jarraitzen da.

Martxa honekin Soietxeko kuartela moduko azpiegituren desegitea eskatu dute: “Estatu Espainiarrak 17 gerrateetan esku-hartzeaz gain, munduko zazpigarren arma esportatzailea dugu, Bilboko portuaren eta Loiuko aireportuaren bidez. Gainera ikerketa ezberdinek egiaztatu dute arma hauek erabili direla zibilen aurka Yemenen eta Sirian. Mugak militarki blindatzen dituen Gobernu honek, gerrate hauetatik ihes egiten duten pertsonak atzera botatzen ditu eta bitartean diru-laguntzak jasotzen dituen industri armamentistatik onura handiak lortzen ditu, bihurtze prozesu batean inbertitu beharrean.

Horregatik guztiagatik, aipatutako kolektiboek mendebaldeko gobernuek milaka milioi euro gastu militarrean zarrasteltzen dituztela salatzen dute, eta inbertsio sozialera, giza eskubideak eta asilo-politika egokiak bermatzera... gerrarik gabeko mundua eraikitzen bideratzea eskatzen dute.

Askapena, Baratzeta Gatika, Berri Otxoak, Butroi Bizirik Transizioan, Eguzki, Ekologistak

[Castellano]

UNA MARCHA AL CUARTEL DE SOIETXE DENUNCIA LAS CONSECUENCIAS DE LAS GUERRAS

Diversos colectivos de Bizkaia bajo el lema “bota kuartelie eta erein porrue”. (Tira el cuartel y planta puerros) han exigido la desaparición de la instalación militar más grande del territorio, el cuartel de Soietxe, realizando una marcha popular hasta las instalaciones para denunciar que los ejércitos provocan muerte y destrucción, y son la principal causa de las migraciones forzadas en el mundo. Reclaman también que el cuartel de Soietxe se destine a necesidades sociales de Mungialdea.

Al llegar al cuartel, las activistas mediante un teatro han escenificado la terrible situación que viven las refugiadas al llegar a las fronteras y se topan políticas migratorias injustas como las devoluciones en caliente, las expulsiones masivas o el cierre de las fronteras que arrojan a la muerte a decenas de miles de migrantes, negándoles el derecho a migrar, derechos humanos básicos y la propia vida. Esta tradicional marcha contra el cuartel militar de Soietxe llega este año a su trigésima edición. Los grupos convocantes han manifestado que “el verdadero papel de este cuartel no es el de defender nuestra seguridad, sino proteger los intereses del sistema capitalista y patriarcal. Este sistema condena a la población a la precariedad laboral y niega sistemáticamente una garantía de pensiones dignas, favoreciendo así la exclusión social, mientras que para mantener instalaciones como las de Soietxe se despilfarra una gran cantidad de dinero público -el gasto militar del Estado asciende a 33.762'40 millones de euros- y se sigue recortando en inversión social”. Con esta marcha han exigido el desmantelamiento de infraestructuras como el cuartel de Soietxe: “El Estado español además de intervenir en 17 guerras, es el séptimo exportador mundial de armas, mediante el puerto de Bilbao o el aeropuerto de Loiu. Además investigaciones han demostrado cómo han sido utilizadas utilizadas contra población civil en países como Siria o Yemen. El mismo Gobierno que blindando militarmente las fronteras, rechaza a las personas que huyen de esas guerras, mientras saca grandes beneficios de una industria armamentística, subvencionada que debería entrar en un proceso de conversión”.

Por todo ello, los citados colectivos solicitan que los gobiernos occidentales dejen de despilfarrar miles de millones de euros al día en gastos militares y se destinen estos recursos a inversiones sociales, a garantizar el cumplimiento de los DDHH, a políticas de asilo, a construir un mundo en paz y sin guerras. Askapena, Baratzea Gatika, Berri Otxoak, Butroi Bizirik Transizioan, Eguzki, Ekologistak Martxan, Ernai Mungia, Errota Gaztetxea, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Kakitzat, KEM-MOC.

BILBOKO TALDE ANTIMILITARISTAwww.sinkuartel.org